

BERBAROTARRA 19. zk. 1999ko apirila

Oparo datorkigu 1999. urtea

Barbaroren 99ko plangintza:

Bagabiltza urtero-urtero urrats txikiak ematen, baina sendo, arlo guztietara gure eskaintzak zabaltzen. Eguneroko gure lan "isila" da, oster, helburuak lortzeko modurik zintzoena. Beste alde batetik, badirudi aro ona datorrela euskararentzat, aldekoa. Gurean ere, "beroalditxo" hau aprobetxatu nahi dugu, aurrera egiten jarraitzeko eta euskal guneak lortu eta finkatzeko. Ekinean bada, ondoren dakarkizueguna 99rako plangintzaren ezaugarri garrantzitsuenen laburpena da:

- **Berrantolaketa eta profesionaltasuna** – Urte oparoa izango da aurtengoa eta gura adina lan egin beharko da. Horregatik ondo definitu behar izan ditugu lehentasunak, arduradunen funtzioak eta abarrekoak (2. eta 3. orrialdeetan). Dagoeneko 16 langile gara euskararen aldeko proiektu honetan lanean gabiltzanok.
- **10. urteurrena** – 10 urte bete ditugula eta ez goaz sekulako ospa-

kizunik egitera. Egiteko dugun lana askoz garrantzitsuagoa da, azken baten. Hori bai, ez dugu ezer ere egin barik pasatzen utziko; bagabiltza-eta geure artean zer edo zer egiteko asmotan.


- **Kultur eskaintza finkoa** – Durangorako kultur eskaintza finkoa (tabernan eskaintzen duguna baino beteagoa) izan gura duen proiektua aztertzen ari gara. Bertako kultur sorkuntza bultzatuz, beste herri batzuetakoa ere gozatu nahi dugunontzako proiektua ari gara lantzen. Edozelan ere, aurtan aurreko urteetan baino apustu handiagoa egin gura dugu kultur ekitaldiei dagokienean. Programa ere, hileroko izango duzue etxean.

- **Zerbitzu profesionalak** – Zerbitzu profesionalak eskaintzeko gaitasuna daukagu eta horri ekingo diogu: Udaleko teknikaria, merkataritzako hitzarmena, diseinua eta maketazioa, aisialdirako eskaintzak, haur literatur areto mugikorra ...

ERAZen aro barria

Konturatuko zineten honetaz, ERAZ etxean jasotzen duzuen eta dugunok (Barbaroko bazkide garenok aldizkaria dohainik jasotzeko aukera daukazue), itxura aldatuta hasi duela urte. Durangaldeko barriak emateko estilo moderno, argiago eta erakargarriago bat estreinatu dute. Aldaketa horren atzean, bost urte bete eta gero, aro barri bati ekiteko ilusioa dago. Aro barri honetan aldizkari profesionalagoa bi-

hurtzea izango da ERAZ-ekoan erronka. Urtean sorpresa bat baino gehiago emateko prestatu dira, gainera. Dana dala, hori guztia irakurlari izan ezean lortzerik ez dago. Beraz, ERAZ oraindik ezagutzen ez duzue, animatu, eta bota egiazue begiradaxoren bat. Irakurle zaretenok, berriz, ERAZen asmo eta ilusio barriei, ilusio berdinarekin erantzuteko gonbitea luzatzen dizuegu.



98an EGINDAKOAK

URTARRILA

Mikel Urdangarinen kontzertua tabernan
Gabonetako umeen parkera irteera
Patinatzera irteera
Antzerki tailerra Ikastola eta Institutuarekin
Elkartearen norabideari buruzko hausnarketa
A-8 autopistaren peajeari buruzko hitzaldia

OTSAILA

Guatemalari buruzko argazkien erakusketa
Haitiko "Anif" kulturako margoak.
Ardoaren kata egin zuten
Sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa

Ikastolakoei deituta Santa Ageda Piztiak rock taldearen kontzertua

MARTXOA

Gazteak Durangaldea ezagutzeko ibilbidea
Birmaniari buruzko argazkien erakusketa. Sagardotegira osteratxoa egin genuen
8. Ipuin labur, bertso.. lehiaketa
Bertso afaria

Zea Mays taldearen kontzertua tabernan
D ereduaren aldeko kanpaina

APIRILA

Kamisetan diseinurako lehiaketa
Kamiseta tailerra Olgetanek
Margoen erakusketa. Joseba Urizar elorriarra
Sei urte eta Hissopus taldeen kontzertua tabernan
Txan magoaren ikuskizuna (Guezan Ba!k)

MAIATZEAN

Collage erakusketa. Jon Roman
Hika ikastaroa gazteentzako
3 handiak 3 egunetan irteera
"Jan itzak erdal hitzak" pegatina kanpaina
Urtzi Urrutikoetxearen olerki musikatua
Arakajun folk taldearen kontzertua tabernan Bertso trama afaria.

EKAINA

Margoen erakusketa tabernan.

Martzaako aterpetxea jarri genuen martxan.

Euskaldunon jatorriari buruzko mahai-ingurua

UZTAILA

Gaztxoendako udalekuak Oronozen
Gazteendako udalekuak Bakiotik Oronozera.

Eta zer! rock taldearen kontzertua.
Jon Arretxeren diapositiba emanaldia
Ene Bada rock taldearen kontzertua

IRAILEAN

Euskal Herri mailako kultur errota jarri genuen martxan beste 6 elkartekin batera Luterl komiki taldearen diapositiba emanaldia
Komikien erakusketa
Begirale ikastaroa

URRIA

"El libro negro del euskera" erakusketa
Dantzut talde kontzertua tabernan

AZAROA

Txiapasi buruzko diapositiba emanaldia Txiapaseko argazkiekin erakusketa tabernan
Perretxikoei buruzko ikastaroa
Ander Lipus antzerkilaria eta Bi Luma Gazteak Durangaldea ezagutzeko irteera

ABENDUA

Eraz, Gerediagarekin 1999ko egutegia
9. Haur Literatur Aretoa.
Haurrentzako liburu gomendagarrien gida

Azokan aurten ere taberna jarri dugu
Bai Euskarari kanpainan parte hartu dugu
Martzaan aisialdi programa
Gazte topaketak

"Karrika" Antzerki taldearen ikuskizuna

Horrez gain, Ikastolarekin batera Atxondoko bailadan, aterpetxea zabaldu genuen.

Urte amaieran merkatarien eta udalaren arteko hitzarmena geure gain hartu genuen eta langile bat daukagu jarraipen lana egiteko.

"Bai Euskarari" kanpainaren bultzatzaile izan ginen Durangon.

ARLOEN ARDURADUNAK



Juan Hernandez
Eraz astekariko zuzendaria.



Amaia Zarrabeitia
Lehendakaria



Idurre Maurtua
Eraz eta Berbaroko diru kontuen arduraduna



Nagore Euba
Martzaako arduraduna



Gorka Barrietabeña
Elkartearen koordinazio eta dinamizazioaren arduraduna.



Oier Albizu:
Kultur ekitaldien arduraduna.



Aitor Uriarte:
Gazte arloa eta Haur Literatur Aretoa.

Idurre Gazteñazatorre
Tabernako arduraduna



Pili Bereziartua
Txokoko arduraduna.
Taberna eta txokoko garbitasuna.



Ana Unamuno
Tabernaria



Eider Gallastegi
Dendarien hitzarmeneko teknikaria.



Unai Iturriaga
Itzulpen zerbitzua.



Beñat Gaztelurrutia
Durangoko kultur sartzailen datu basea



Fernan Ruiz
Euskararen normalizazioa udalean.



APIRILA

KONTZERTUAK

18, domeka, 21.00etan
NAUN

20, martitzena, 18.00etan
Bartolome Erzilla eskolako orkestra

28, eguaztena, 20.30etan
Bide Hertzean eta Iñaki Labaka

ERAKUSKETAK

1etik 15era

Matu - argazkiak

16tik 30era


Iban Gorriti - argazkiak

MAIATZA

KONTZERTUAK

(10. urteurrena. datak zehaztu gabe daude)

- . Mikel Urdangarin
- . Erramun Martikorena
- . Eskandalu Publiku rork taldea
- . Bazkideen batzar orokorra
- . Bazkide guztientzako bazkaria
- . Takolo, Pirritx eta Porrot



ERAKUSKETAK

Jaime Vicario

UDARA BITARTEKO AISIALDI EKINTZAK

Martzaan asteburua (Olgetan)
Play Back lehiaketa (Olgetan)
Korrika txikia (gazte batzordea)
Irrati tailerra (gazte batzordea)
Tailerra (Olgetan)

bagabiltza bagabiltza bagabiltza bagabiltza

Merkataritza

Honezkero jakingo duzuenez, Merkataritzan euskararen erabilera bultzatzeko Berbarok hitzarmena izenpetu du Udalarekin. Euskararen normalkuntza proiektuaren barruan kokatu behar da, beraz, egitasmo hau, eta urte beteko iraupena izango du. Barruko orrialdeko argazkian ikusten duzuenez, Eider Gallastegi da proiektu honen jarraipena egingo duena.

Martzaako aterpea

Udaberriaren atarian gauden honetan, Martzaako aterpe ezin aipatu barik utzi. Aukera itzela da aisialdia euskaraz bizi izan gura duenarentzat, ume, gazte zein helduentzat. Bertan egoteko zein ingurua ezagutzeko ere leku aparta da, bai asteburu pasa joanda, bai egun pasa, bai arratsalde pasa joanda ere. Animatu zaitetz bisita egitera!


“ Julene Azpeitia ”

Lehiaketa, ipuin eta bertso paperak

Dakizuenez, azkeneko urteetan Berbarok antolatu du ipuin labur, bertso paper eta komikien lehiaketa. Aurrean, berriz, Udaleko Euskara Arloak hartu du bere gain antolaketa lana, baina aldaketa batzuekin. Izan ere, Berbarorentzat gero eta gastu handiagoa izan da, eta horretarako dirulaguntza azkeneko 5 urteetan, aldiz, berdintsua.. Edozelan ere, hemen gauzkazue edozein informaziotarako. Bitartean, jarri dantzan boligrafoa!

Kulturgune berri bat

Kulturgune baten diseinuan ari gara buru-belarri aspaldi batetik, behar bada zuetako batzuk entzuna izango duzue honezkero. Hileroko kultur egitaraua eta horretarako baldintza tekniko egokiak izango dituen gune bizi eta parte hartzailea da hasierako ideia baten egin nahi duguna. Zoritxarrez gauzak ez daude barria zabaltzeko bestean lotuta momentuz eta ezingo dizugu gauza larregi azaldu. Edozelan ere bazkideen urteko batzarrerako dena prest izatea espero dugu.



Kultur sortzaileen datu basea

Dagoeneko hasiak gara Durangoko kultur sortzaileen Datu Basea izango dena gauzatzen. Durangon eta, ahal dugun heinean, Durangaldean, berbaz, musikaz, margoz eta abarrez... kultura sortu eta interpretatzeko gai diren etorkizuneko artista hasiberrien ahalik eta zerrenda osatuena burutu behar dugu. Berbaron ekimenak antolatzerakoan, baina batez ere, kultur guneko programazioa osatzerakoan Datu

Base hau izango da erabiliko dugun lan-tresna garrantzikoena. Guzti hau ondo egiteko zuen laguntza behar dugu. 15-20 bat bazkideekin egin nahi da lan hau.

10. urteurrena

Lehen ere aipatu bezala, ez dugu sekulako ospakizunik egingo, bai ostera, geure artean zer edo zer txukuna. Badago arrazoirik erabaki hori hartzeko: alde batetik, esku artean darabilgun kultur proiektu handi hori; eta bestetik, Ibiladia eta hauteskundeak izango dira gure ospakizunetarako egokia den sasoian. Edozelan ere, izango duzu ekitaldien berri.

Tabernari itxura berria

Apirilaren hasierarako tabernaren itxura aldatzeko asmoa daukagu. Garbitu, pintatu eta argiak aldatuko ditugu. Horrez gain, aldaketa aprobetxatuta pintxoak jarri eta musika estiloa piskat zabaltzeko asmoa ere badugu. Taberna zurea/zuretzako da bazkide, etorri eta gozatu.

Gazte arloa indartzen ari da

Gazte arloan esparru ezberdinetan lanean ari garenon artean batzorde iraunkor bat osatu da. Batzordeak dituen helburu orokorrak eta lehentasunak finkatzea dute lan nagusia. Gainera ekintza bateratuak eta koordinazio lana ere egin behar dute. Partaideak Eider Gallastegi, Egoitz Arteaga, Saioa Loizate, Larraitz Eguren, Galder Gonzalez, Oier Albizu, Ekaitz Aiarzaguena eta Aitor Uriarte.

bagabiltza bagabiltza bagabiltza bagabiltza